



**Arartekoaren ebazpena, 2009ko abenduaren 23koa. Honen bidez bukatu da ofizioz hasitako jarduna, gure autonomia erkidegoan izapidetzen diren hirigintzako planek duten ingurumeneko ebaluazioaren beharrari buruzkoa.**

### Aurrekariak

- Ofizioz burutu den jardun honen helburua hirigintzako plan batzuek duten ingurumeneko ebaluazioaren beharra aztertzea zen. Zehazki, lurzoru urbanizagarriko plan partzialak eta hiri lurzoria garatzeko plan bereziak.

Gai honetan, abiapuntu hartu behar dugu hirigintzako plan guztien izapidetzeari honako arauak aplikatu behar zaizkiela: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/42/CE Zuzentaraua, 2001eko ekaiaren 27koa, plan eta programa jakin batzuen eraginaren ebaluazioari buruzkoa eta estatuko 9/2006 legea, apirilaren 28koa, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzkoa (9/2006 Legea).

Arau horiek hirigintzako plan guztien ingurumen ebaluazioa eskatzen dute, planek ingurumenerako ondore garrantzitsuak izan baldiz baditzakete. Bi arauok diotenez, hirigintzako planek ondorio nabarmenak dakartzate –hiri zein landa lurretan-, baldin eta ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa izango duten proiektuak baimentzeko erabiltzen badira.

3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, ingurumena babesteari buruzkoak (3/1998 Legea), eta 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Hirigintzari eta Lurzoruari buruzkoak (2/2006 Legeak), ordea, ez dute gure autonomia erkidegoan ingurumeneko ebaluaziorik egin behar denik esaten, lurralde antolamendu zehatzeko planak eta egitura antolatzeko planek hiri lurzoriari eragiten dioten kasuetan, eta aurretik aipatu dugun oinarriko ingurumeneko legeriaren arabera, ingurumenean eragin nabarmenak eragin litzaketen arren.

Halaber, aipatu araudian ezarritakoari muzin eginez, ez da inolako prozedura berezirik jarraitu, esparruko txikiko planeamendu edo planen aldaketa jakin batzuek ingurumenerako ondore garrantzitsurik izan lezaketen ala ez zehazteko.

Halako prozedurarik segitzen ez den heinean, ingurumeneko organo eskudunak kasuz kasu azertu behar du plan partzialak zein hiri antolamenduko plan orokorren edozein aldaketak ingurumen ebaluaziorik behar duten ala ez, plan horiek ingurumenerako dituzten ondore kaltegarriak direla eta.





- Lehenago, egoki iritzi genuen alor honetan eskumenak dituzten administrazio publikoetara jotzea, hizpide dugun gaiari dagokionez, ingurumeneko araudia aplikatzeko moduari buruzko gogoetak helarazteko.

Eusko Jaurlaritzara jo genuen: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailera eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailera. Era berean, hiru foru aldundietan, hirigintzako eta ingurumeneko eskumenak dituzten organoei eta Euskadiko Udalen Elkarteari, Eudel, informazioa eskatu genien.

Idazki hartan, antolamendu zehatzeko planen eta egitura antolatzekeo plan guztien ingurumeneko ebaluazioa eskatzeko planteatu genuen, ingurumenean eragin nabarmena baldin bazuten. Horretarako, planak lehen aldiz planteatu zireneko aldia 2004ko uztailaren 21aren ondorengoa izan behar zen. Salbuespen gisa hartuko genituen ebaluazio hori egitetik salbuetsita zeuden kasuak, ingurumeneko administrazioaren berariazko adierazpena eta publikoa eskatzen duen araudian ezarrita dagoen prozedurari jarraiki.

Era berean, autonomiako legea egokitzeko beharra azaldu genuen. Zehazki, 2/2006 eta 3/1998 Legeak 2001/41/CE Zuzentarauarekin eta 9/2006 Legearen erregimenarekin egokitzeko. Azken bi arau horiek hiri zein landa lurretan egiten diren eta ingurumenari eragin diezaioketen plan guztien ingurumeneko ebaluazioa arautzen dute.

- Gero, galde egin genien administrazio batzuen erantzuna jaso dugu. Ondoren aipatuko ditugunak erantzun digute, eta bertan agertzen ez direnak erantzunik bidali ez digutenak dira.
  - Orduko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Antolamendu Sailak txosten bat bidali zigan, eta erakunde honek agertutako gogoetekin bat zetorren.

Beraz, Eusko Jaurlaritzaren ustez, Europako zuzentarauarekin eta 9/2006 Legearekin bat, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 59 artikulua hizpide dituen plan guztietan -egitura antolatzekeoak zein antolamendu zehatzekoak- ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egin behar zen. Baldin eta planek ingurumenean eragina izan ahal bazuten, eta planen lehen prestaketa ekintza 2004ko uztailaren 21aren ondoren izan bazen.

Txostenak zioen, ordura arte, autonomia erkidegoak ez zuela ezarri prozedura zehatzik, eta ez zituela eskumenak banatu, lurralde zati txikia hartzen zuten planen edo planen aldaketa txikien ingurumeneko ebaluazioa egin behar zen erabakitzekeo.

Era berean, 9/2006 Legea oinarritzak zela uste zuten; eta, ondorioz, sail hura otsailaren 27ko 3/1998 Legea aldatzea sustatzen ari zen.





- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailak beste txosten bat bidali zigun, planeamenduaren izapidetzearen prozedurari buruzko bestelako hausnarketekin. Txostenak zioenez, ingurumenean, lurralde antolamenduan eta hirigintzan eskumenak dituzten administrazio publikoak hausnarketa fasean daude, planak eta programak izapidetzeari buruzko prozeduraren gainean; eta, baliteke, azkenean, indarrean dauden arauetakoren bat aldatzea.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamenduak hainbat gogoeta bidali zigun, eta Arartekoak egindako gogoetekin bat zeterren.

Gogoetetan adierazi zuen, EAEko legea ez zettorrela guztiz bat Europako Batasuneko zuzentarauarekin eta 9/2006 Legearekin, apirilaren 28koa, aplikazio esparruari eta zehaztapenei dagokionez.

Txostenak zioenez, aipatutako alor horri dagokionez, erkidegoko legeria aldatzeko beharra dago.

- Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailak, berriz, Arartekoaren analisia oinarri hartuta, ondorioztatu zuen antolamendu zehatzeko planak ingurumeneko ebaluaziotik at geratzen zirela.

Hori frogatzeko, alegatu zuen, zuzentarauarekin eta 9/2006 Legearekin bat, EAEn arauzko irizpideak eta atalaseak ezarri direla, mugarritzeko; plan batek ingurumenean eragina duela uste bada.

3/1998 Legea eta 183/2003 Legea ikusita, foru sailak ondorio bat atera zuen: aplikatu beharreko araudiaren interpretazio integratua egin daiteke, hiri lurzorua garatzeko plan partzialek eta bereziek ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratua egiteko betebeharra ez dutela zehazteko.

Nolanahi ere, adierazi zuen, EAEko legeria egun dauden arau berriekin egokitzeko beharra dagoela.

- Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta Hirigintza Sailak ondorio bera atera zuen: antolamendu zehatzeko planak ingurumeneko ebaluazioa egitetik salbuetsita daude.

Horretarako, hirigintzako planak hierarkiapekoak direla eta elkarren mendekoak direla hartu zuen oinarri. Hirigintza antolamenduko plan bereziek eta plan partzialek plan orokor bat behar dute, eraginkor izateko. Planeamendu orokorrak ingurumeneko ebaluazioa dauka, eta, beraz, ez da behar ingurumeneko beste ebaluazio bat egitea. Horregatik, antolamendu zehatzeko planek ez dute eraginik ingurumenean, berez duten izaeratik.





Txosten horretan ere, 3/1998 Legea estatuko eta Europako Batasuneko legeekin bateratzeko aurreikuspenak aipatu zituzten.

Aurrekariak ikusita, interesa duten administrazioei ofiziozko espediente honi buruzko hainbat gogoeta eta ondorio helaraztea egoki iritzi dugu.

### Gogoetak

- Zuzentarauak zein estatuko legeak hirigintzako plan guztien ingurumen ebaluazioa eskatzen dute, planek ingurumenerako ondore garrantzitsuak izan baldin baditzakete.

Bi arauok diotenez, hirigintzako planek ondorio nabarmenak dakartzate –hiri zein landa lurretan-, baldin eta ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa izango duten proiektuak baimentzeko erabiltzen badira.

Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa duten proiektuen taldearen barruan, zuzentaraan zein estatuko legean, industriaguneetako eta etxadietako proiektuak ageri dira, baita saltoki gunee eta aparkamenduenak ere.

Horregatik, ingurumenaren ebaluazioa eskatu ahal izango da lurzorua aldatzen duten obrak egiten diren bakoitzean. Irizpide hori zuzentaraan eta estatuko legerian jasota dago, eta ez dator bat 3/1998 legearekin. Azken arau horren arabera, ingurumeneko ebaluazioa egin behar da hirigintzako antolamenduko planetan eta lurzoru ez urbanizagarrian aldaketak egitean, baita landa lurretako plan berezietan.

Europako Komunitateen Justizia Epaitegiko jurisprudentziak ezarri du ezin direla, *a priori*, hiri lurzoruan aurrekusi diren proiektuak ingurumenaren ebaluazio egitetik salbuetsi. 2006ko martxoaren 16an justizia epaitegiak emandako epaiak (C-332/04 *Paternako Aisialdi Zentroa*) dio Europako Batasuneko zuzenbidearen eta epaitegiak berak emandako 85/337 Zuzentaruaren kontrakoa dela hirigintzako proiektuak ingurumenaren ebaluaziotik salbuestea, lurzoru ez urbanizagarrian ez daudelako soilik.

- Planak hierarkia baten mende badaude, zuzentarauak eta 9/2006 legeak ingurumenaren ebaluazioa egiteko sistema egin dute, ebaluazioa birritan egitea saihesteko. Hala ere, horrek ez du sekula txostena egitea saihesteko. Honela baitio 9/2006 Legeko 6.2 artikulua: *planak administrazio publiko bereko erabaki esparru hierarkiko ezberdinetan egituratu. Esparru bakoitzeko ingurumeneko ebaluazioa plana edo programa dagoen erabaki fasearen arabera egingo da, ebaluazioak birritan egin behar izatea saihesteko...*

Oinarrizko ezarpen hori dela kausa, aurrekarietan azaldu dugun argudio batek indarra galtzen du; honakoak: antolamendu zehatzeko planek



ingurumenean duten eragina ebaluatzeko beharrik ez dago, aurretik beste ebaluazio bat badago. Ingurumeneko ebaluazioaren ebaluazioa une oro egin behar da, unean bizi dugun hirigintzako antolamendua aintzat hartuta; horrela, ebaluazioa errepikatzea saihestuko dugu.

Bestalde, antolamendu zehatzak dira, kasu batzuetan, etxadiak edo industrialdeak egiteko proiektuei baimena ematen diena. Proiektu horiek ingurumeneko ebaluazioa egiteko betebeharra izan dezakete, egun dagoen ingurumeneko legeriaren arabera. Plan bereziak edo plan partzialak ez dira zertan azalera txiki batean burutu; areago, udalerrri oso bati eragin diezaizokete. Hala dio 2/2006 Legeko 69. artikulua.

Planeamenduaren aldaketei dagokionez, Europako Batasuneko araudiak ez du ebaluazioa nahitaezkoa izatea eta lurzoru mota lotzen. Aldiz, ingurumeneko ebaluazioa beharrezkoa izango da, planak dakarren proiektuak ingurumeneko ebaluazioa nahitaez eduki behar badu. Adibidez: hirigintza planeamendua aldatuko da hiri lurzoruan, eta lursail baten birkalifikazioa baimentzen du. Orain arte gune berdea izan da tokia, eta proiektuak ingurumeneko ebaluazioa harekin dakarren instalazioa baimentzen du, hala nola, geltoki intermodala edo kirol portua.

Gauzak horrela, administrazio publikoek beti eskatu behar dute ingurumeneko ebaluazioa, tartean den planak lurzorua erabiltzea edo hirigintza antolamendua aldatzea ekarriko duen proiektuak ingurumeneko ebaluazioa eskatzen badu.

- Honen harira, Arartekoak alor horni buruzko gomendio orokorra aurkeztu zuen 2008ko Txostenean. Txostena 2009ko martxoan aurkeztu zen Eusko Legebiltzarrean. *"Gure erkidegoan izapidetzen diren hirigintzako antolamenduko zenbait planetan ingurumen ebaluazioa nahitaezkoa izatea eskatzea"*<sup>1</sup>.

Ebazpen horretan, lehenik, hirigintzako antolamenduko planak onartzeko eskumenak dituzten toki eta foru administrazioetara jo genuen. Haiei adierazi genien, ingurumeneko araudia ikusita, hirigintzako antolamenduko plan bereziak, plan partzialak zein hirigintzako antolamenduko planen aldaketa guztiek ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa izan behar dutela beren izapidetzean; ingurumeneko administrazioak egiaztatzen badu planak eragin nabarmenak izan ditzakeela ingurumenean. Hori guztia ingurumeneko legeriak dioenarekin bat.

---

<sup>1</sup> Ikusi hurrengo helbidean:

[http://192.168.100.2:8080/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_1639\\_3.pdf](http://192.168.100.2:8080/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_1639_3.pdf).



Bestalde, ingurumeneko administrazioek ebazpena eman behar dute, planen aldaketa txikiek eta lurralde zati gutxi hartzen duten planek ingurumenean eragina izan dezaketean kasuak zehazteko.

Nolanahi ere, erakunde honen aburuz, beharrezkoa da, EBko zuzenbidetik datozen betebeharrak betetzeko, hirigintza, lurzoru eta ingurumen eskumenak dituzten sailek hirigintzako eta ingurumeneko legeria egokitzearen alde egitea.

- Aipatu beharra dago, aurreko Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak idatziz adierazi ziola erakunde honi, adierazitako planteamenduaren alde zegoela.

Era berean, 2009ko azaroaren 6ko Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuran, Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuak adierazitako irizpidea aipatu beharra dago, gomendio hau betetzeko aurreikuspenen gainean egindako galdera baten harira. Erantzun digutenez, saila gomendioa onartzeko prest dago, eta legeria estatuko araudiarekin egokitzearen aldekoa da.

Horren harira adierazi nahi dugu 9/2006 legea oinarritzkoa dela. Horregatik, ezin da legezko edo arauzko xedapenik egin, alor hau arautzen duten EBko eta estatuko xedapenen aurkakoa bada. Aldiz, erakunde honen ustez, plana onartu behar duen administrazioa aipatu diren lege komunitarioetako ezarpenak urratzen egon liteke.

- Ziurgabetasun juridikoko egoera honi dagokionez, gogora ekarriko dugu Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 330/09 Ebazpena, maiatzaren 14koa. Horrek dio hainbat industria ezartzeko aukera dakarren industriagune bat garatzeko plan partzialak ingurumeneko ebaluazioa izan behar duela.

### Ondorioak

Errepikatu behar dugu, ingurumeneko araudia ikusita, hirigintzako antolamenduko planak, plan partzialak eta hirigintzako antolamenduko planen aldaketak ingurumeneko ebaluazioa izan behar dutela izapidetzean sartuta; ingurumeneko administrazioak ziurtatzen duenean proiektuak eragin nabarmenak izan ditzakeela ingurumenean, ingurumeneko legediari jarraiki.

Bestalde, ingurumeneko administrazioek ebazpena eman behar dute, planen aldaketa txikiek eta lurralde zati gutxi hartzen duten planek ingurumenean eragina izan dezaketean kasuak zehazteko.





Nolanahi ere, erakunde honen aburuz, beharrezkoa da, hirigintza, lurzoru eta ingurumen eskumenak dituzten sailek hirigintzako eta ingurumeneko legeria egokitzearen alde egitea, EBko zuzenbidetik datozen betebeharrak betetzeko.

Egokitzapen hori egin arte, ezin da legezko edo arauzko xedapenik egin, alor hau arautzen duten Europako Batasuneko eta estatuko xedapenen aurkakoa bada. Aldiz, erakunde honen ustez, plana onartu behar duen administrazioa aipatu diren lege komunitarioetako ezarpenak urratzen egon liteke.

Zentzu horretan, ingurumeneko eta hirigintzako araudian aurreikusi diren aldaketen zain egongo gara, jarraitzen diren prozedurak batasuneko zuzenbidearekin bat etorri arte.

